## 4. BALIABIDEA:

## EREMUAK, ESTRATEGIAK eta EKINTZA-ILDOAK.

Egonezinak identifikaturik eta helburu bihurturik, saiatzen gara dagokien eremuan kokatzen, asmoa, bere lorpenerako beharrezkoak diren ekintzak argi planifikatzea delarik. Dokumentu honetan lagungarri izan daitezkeen estrategia eta ekintza-ildo batzuk proposatzen dira.

| EREMUAK | ZENBAIT ESTRATEGIA | ZENBAIT EKINTZA-ILDO: |
|---|---|---|
| 1. eremua: HEZKUNTZA-POLITIKA | **KOMUNITATEAK DEFINITZEN DU ZER ULERTZEN DUEN KALITATEZKO ELKARBIZITZAZ IKASTETXEAN**<br>**HEZKUNTZA KOMUNITATERAKO ELKARBIZITZA GUNEEN ANTOLAKETA ETA PROGRAMAZIOA**<br>**ELKARBIZITZA-BEHATOKIA SUSTATU** | - Justiziaren eta ekitatearen etikan kokatu hezkuntza-ekintza guztiak.<br>- Ikastetxearen harreman eta ekintza eremu guztietan hezkidetza sustatu.<br>- Hezkuntza-komunitatearen estamentu guztien artean informazioa bideratu eta komunikazioa kudeatu.<br>- Familien partaidetza eta korresponsabilitatea sustatu.<br>- Ikastetxearen guneetan, erabakiak hartzen eta ekintza guztietan ikasleen partaidetza aktiboa sustatu.<br>- Kolektiboki sortuta eta ebaluatutako elkarbizitzaren gestio demokratikoaren proiektu bat sustatu.<br>- Ikastetxean bertan prestakuntza lehenetsi. Baliabide materialak eta pertsonalak eskaini Elkarbizitza Plana aurrera eramateko. |

| | | |
|---|---|---|
| 2. <u>eremua:</u> <u>ELKARBIZITZAREN ANTOLAKUNTZA ETA KUDEAKETA</u> | **HEZKUNTZA KOMUNITATE OSOA INPLIKATU ELKARBIZITZA-NORMATIBAREN ERATZE ETA ZABALTZE LANEAN** | - Hezkuntza-komunitateko pertsona bakoitzaren ongizatea bermatuko duen arautegi bat sortu ikastetxea osatzen duten pertsona guztien ekarpenak jasoz.<br>- Elkarbizitza positiboa sustatzeko, ikastetxeko jarduera-, gune-, denbora... guztietan martxan jartzeko moduko hezkuntza-ekintzak proposatu.<br>- Elkarbizitza eta elkarrizketa sustatzen duten eskolaz kanpoko ekintzak antolatu. |
| | **GATAZKA EGOERAK KUDEATZERAKOAN ETA ERABAKIAK HARTZERAKOAN ARAUTEGIA IZAN ERREFERENTE GISA PERTSONA GUZTIENTZAT** | |
| | **ARAUTEGI BATEZ HORNITU PERTSONA BAKOITZARENTZAT AUKERA- ETA TRATU-BERDINTASUNA BERMATZEKO** | - Gatazka garapen pertsonalerako zein komunitariorarentzako aukera gisa aurkeztu eta tratatu.<br>- Gatazken bakezko ebazpen-esperientziak ezagutzera eman.<br>- Egitura bat sortu non gatazkak mahai gainean jarri eta ezkutatu gabe tratatu ahal diren. |
| 3. <u>eremua :</u> <u>GATAZKAREN TRANSFORMAZIOA ETA ETIKA</u> | **ELKARBIZITZA HOBETZEKO HAUSNARTZEKO ETA ERABAKIAK HARTZEKO DENBORA ETA GUNEEN SORRERA** | - Hezkuntza-komunitateko pertsona bakoitzaren ongizatea bermatuko duen arautegi bat sortu ikastetxea osatzen duten pertsona guztien ekarpenak jasoz.<br>- Elkarbizitza positiboa sustatzeko, ikastetxeko jarduera-, gune-, denbora... guztietan martxan jartzeko moduko hezkuntza-ekintzak proposatu.<br>- Elkarbizitza eta elkarrizketa sustatzen duten eskolaz kanpoko ekintzak antolatu.<br>- Gatazka garapen pertsonalerako zein komunitariorarentzako aukera gisa aurkeztu eta tratatu.<br>- Gatazken bakezko ebazpen-esperientziak ezagutzera eman.<br>- Egitura bat sortu non gatazkak mahai gainean jarri eta ezkutatu gabe tratatu ahal diren. |
| | **BIOLENTZIA EZAREN CURRICULUMAREN SARRERA** | |

| | | |
|---|---|---|
| 4. eremua: PARTAIDETZA | **PARTAIDETZA-KULTURA SUSTATU**<br><br>**ESPAZIOAK SORTU ETA DENBORA HARTU HAUSNARKETARAKO ETA ELKARBIZITZA HOBETZEKO ERABAKIAK HARTZEKO** | - Estamentu guztien errepresentazioa eta protagonismoa bermatu eztabaida-, hausnarketa-, elkarbizitza- eta erabakiak hartzeko guneetan.<br>- Hezkuntza-komunitatekideen artean sustatu komunikazio positiborako oinarrizko trebetasunak eta konpetentziak: ideiak eta sentimenduak adierazi, entzute eta pazientzia aktiboak, izpiritu kritikoa...<br>- Talde heterogeneoak bultzatu.<br>- Korrespontsabilitatea, elkarren arteko laguntza, trukaketa irizpideekin funtzionatzen duten taldeak sortu.<br>- Talde, pertsona eta egoera bakoitzaren ezberdintasunak eta mugak onartu. |
| 5. eremua: EMOZIOAK, SENTIMENDUAK ETA IDENTITATEA | **AUTOEZAGUTZA ETA AUTORREGULAZIO-PROZESUAK SORTU.**<br><br>**KONFIANTZA ETA SEGURTASUN-KLIMA SUSTATU ZENTROKO ESPARRU GUZTIETAN** | - Pertsona bakoitzaren protagonismoa sustatu bakoitzaren ezberdintasuna abiapuntu delarik eta onarpen, konfiantza, segurtasun eta errespetu-giro batean.<br>- Ekarpen ezberdin bakoitzaren garrantzia azpimarratu komunitatearentzat duen balio aberasgarriagatik.<br>- Ikastetxeko bizitza-eremu guztietan inposaturiko estereotipo ezberdinekiko izpiritu kritikoa garatu: sexu-generoa atxikitze soziokulturala dela eta, sinesmenak direla eta, ezaugarri fisiko edo psikikoengatik, aukera sexualagatik...<br>- Ez estereotipaturiko jarrerak baloratu.<br>- Hizkuntza hezkidetzailearen erabilpena baloratu.<br>- Emozioak eta sentimenduak adierazteko, kudeatzeko eta bideratzeko oinarrizko gaitasunen eta konpetentzien garapena sustatu.<br>- Ikastetxeko eremu guztietan autobehaketa eta autoebaluaketa prozesuak sustatu. |

| | | |
|---|---|---|
| 6. eremua: IRAKASTEKO ETA IKASTEKO PROZESUAK | **GELAN METODOLOGIA PARTEHARTZAILEA SUSTATU**<br><br>**IKASLE GUZTIEKIKO ITXAROPEN ALTUAK MANTENDU**<br><br>**HEZKUNTZA INDIBIDUALIZATU** | - Elkarlaneko ikasketa-egoerak sustatu.<br>- Metodologia hobetzeko, aldatzeko eta dibertsifikatzeko esperientzien trukaketa bultzatu.<br>- Bizitzarako oinarrizko gaitasunak ikas-arloetatik garatu.<br>- Curriculumaren berrikusketa kritikoa: ikasleen konpetentziak garatzeko adierazgarritasuna, erabilgarritasuna eta baliagarritasuna aztertu.<br>- Eskola-komunitate osoarentzat eguneroko bizimoduarekin lotuta eta eremu guztietara zabaltzen diren ikasteak proposatu. |
| 7. eremua: IRAKASLAN-ESTILOA | **OINARRIZKO AKORDIOAK HARTU**<br><br>**ETENGABEKO PRESTAKUNTZA IRAKAS - LANAREN AUTOBEHAKETA ETA HOBEKUNTZARAKO** | -Menderatze-menpeko harremanak ezartzea eragotzi egiten duten ekimenak martxan jarri..<br>- Elkarlaneko -metodologiak erabili.<br>-Ikastetxeko emakumeen eta gizonen, irakasle eta ikasle guztien interesak, ideiak, iritziak eta beharrak jaso, gizarteratze prozesuari esker ezberdinak izan daitezkeelako.<br>-Beste irakasleekin ezagutza, esperientziak, nahiak eta beharrak konpartitu garapen profesionalean elkarren artean laguntzeko eta etengabeko hobekuntzarako.<br>-Bizitzarako gaitasunen garapenaren eta elkarbizitza positiboaren ikas-arloak norberarenak balira bezala onartu. |